

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
POLIZIARI BURUZKO LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETAREN INGURUKO
LEGEAREN AURREPROIEKTUAREKIN LOTUTA BIDALI DUEN EKONOMIA-
ARAUEN KONTROLAREN TXOSTENA.****-Tramitagune- DNCG_DEC_65484/2015_07**

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, ekonomia-arauen kontrola arautzen du III. tituluaren IV. kapituluan. Nahitaezkoa da ekonomia-arauen kontrola egitea; horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion txostena egin behar du.

Kontrol horretan sartzen da, ekonomiari eta antolamenduari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo ororen eraketa zein ezabaketa fiskalizatzea, bai eta organo horien aldaketak eta berregituraketak ere.

Txosten hau egiteko, xedapen hauek hartu ditugu kontuan: aipatutako araua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluaren 3. atala; eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. artikulua.

TXOSTENA

I. XEDEAK ETA AURREKARIAK

Txosten honen xedea goiburuan aipatutako proiektuaren ekonomia-arauen kontrola da, bosgarren aldiz Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen aldaketa helburu duena.

EAEko administrazio publikoek Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren kidegoen, udal-ikuskatzaileen eta udalerrien mendeko mugikortasun-agenteen bidez ematen dituzten zerbitzu, prestazio eta jarduketak Euskadiko segurtasun publikoko sisteman sartzen dira, *Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistemaren Antolamenduari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen baldintzetan (hutsen zuzenketa: 2012/10/16ko EHAA, 201. zk.)*. Arau horren berri eman zuen Bulego honek 2011ko apirilaren 20an.

Gogorarazi behar da Lege horren aurreproiektuaren amaierako testua berriro formulatu zela; hasieran araudi bakarrean segurtasunari buruzko lege integrala antolatzeko sortu zen, Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeko Legearen aurreproiektua; bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen aldaketa sartu zen, azken xedapen gisa. Aldaketa hori azkenean bereizi egin zen eta aurreproiektu independente baten eduki izan zen, Euskal Autonomia

Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen laugarren aldaketarena. Horren berri ere Bulego honek eman zuen, 2011ko apirilaren 20an, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eman zuen irizpena (2011ko ekainaren 1eko 130/2011 irizpena); hala ere, aurreproiektu hori indargabetu egin zen parlamentuaren izapidean eta, beraz, ez zen indarrean jarri.

Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen III. tituluak sistema poliziala edo herritarren segurtasuneko sistema segurtasun publikoko sistemaren zati gisa jasotzen du, eta, hori horrela, autonomia-erkidegoko polizia-eredua antolatzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren zerbitzuen koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak aurreikusten ditu, bai eta horietan jarduera osagarriak sartzeko mekanismoak ere, Ertzaintza polizia-kidego autonomikoa, Eusko Jaurlaritzaren mendeko dena, egotea sustatzen duen polizia-ereduarekin, zeinak ereduaren nagusitasuna hartzen duen bere gain polizia orokor eta integral gisa, udalerrien mendeko udaltzaingoei osatuta. Bi kidego-mota horiek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia; baterako estatutu-araubide homogeneoa dute, alderdi batzuetan izan ezik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea zenbait aldiz aldatu da, eta bereziki Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen bidez, lege hartatik segurtasun publiko osoaren alde erkideak bereizi baitzituen, hala nola Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren erregulazioa, udaltzaingoen arteko koordinazioa edo polizia-lankidetzako mekanismoak.

Orain izapidetzen den aldaketa honetan, proiektuaren memoriaren arabera, honako hauei heltzen zaie: kontu eman behar zaien herritarrei zerbitzuak ematearekin lotutako polizia-ereduaren alderdiak indartzen dituzten erreforma partzial batzuei eta polizia-zerbitzuen teilakatzeari gizarte irekiarekin, anitzarekin, elebidunarekin eta eskubide-berdintasuna duten gizon eta emakumeek osatzen duten gizartearekin.

Aipatutako aurreproiektua X. Legegintzaldirako Jaurlaritzaren Legegintza Programan (2012-2016) sartzeko da -2013ko ekainaren 25eko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen-, eta II. eranskinean, 25 zenbakiarekin, honako lege-ekimen hau aurreikusten da:

25.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIARI BURUZKO LEGEA

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskadiko Poliziari buruzko arautegia gizartearen egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea, proposatzen den polizia-ereduan sakonduz: polizia komunitarioa eta herritarrei zerbitzua emateko hurbila. Horretarako, prozedura azkarrak eman behar zaizkio Ertzaintzari, une eta leku bakoitzean ondo baino hobeto bete ditzan polizia-zerbitzuaren beharrak, betiere haiek bateragarriak izanez gero funtzionarioen eskubideen bermearekin, eta, era berean, mekanismo egokiak aurreikusi behar dira polizia-zerbitzuaren efikazia eta eraginkortasuna zaintzeko, eta Ertzaintzaren jarduera inpartzialki ikuskatzeko legez aurreikusitako kasuetan.

Erreforma horiek eta indarrean dagoen ordenamendu juridikora eta jurisprudentzia berrienera egokitzeke beste beharrezko batzuk egiteak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko egungo Legea hainbat aldiz aldatu den testua izateak dakarte arauzko testu bakarrean Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko arauketa jasoko duen lege-testu xedapen berria egitea komenigarria izatea, antolamenduari, jarduketa-printzipioei eta langileen araubide juridikoari dagokienez.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Sartzeko baldintzak lege formal batean erregulatzea. Aukeraketa-organoen inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezializazio-bermeak nahiz emakumeen eta gizonen arteko oreka areagotzea. Eragin positiboko neurriak hartzea, emakumeak polizia-kidegoetan sar daitezen.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura erraztea eta, horretarako, Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritzaren figura ezabatzea.
- Barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga kentzea. Zerbitzu-eginkizunak betetzen dituztenei eraginkortasunez bete dituzten postu edo zereginei dagozkien ordainsariak aitortzea.
- Bigarren jardueraren kasuan bezala, eritasunagatik, istripuagatik edo adinagatik fisikoki edo psikikoki eragindako funtzionarioen osasuna babesteko neurriak indartzea.
- Diziplina-araubidea eguneratzea.
- Udaltzainek beren udalerritik kanpo jarduteko aukera ematea, toki-agintariak babesteko; era berean, kidego horien lanbide-egiturari buruzko beste alderdi batzuk eta legezkoak diren beste zeregin batzuetan dihardutenak, hala nola, besteak beste, udal-zaintzaileak eta mugikortasun-agenteak.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-funtzionarioak.
- Administrazio publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoekin.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Finantza-eragin mugatua; izan ere, legearen aldaketek ez dakartzate, hasiera batean, arau honen onespeneraren beraren ondorioz egiazta daitezkeen kostuak.

d.- Legebiltzarrerara bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoan.

II. ANALISIA

a) Prozedura

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluko aurreikuspenekin (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen ditu), eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela

bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

Gaur egun arte, aztertzen ari garen aurreproiektua egiteko prozeduran arrazoiz bete dira Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak eskatutako betekizunak. Dokumentazioan honako hauek daude: ekimena azaltzen duen memoria; proiektua hasteko eta aurretiaz onesteko aginduak; sailaren txosten juridikoa; memoria ekonomikoa; HHABHZren txostena; Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena; Emakunderen txostena; Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 29/2015 Txostena; informazio publikoko, entzunaldiko, parte-hartzeko eta alegazioetako izapideei buruzko dokumentazioa; izapide-memoria (bertan, aurkeztutako alegazioak eta ondorioz jasotako aldaketak nola hartu diren kontuan zehazten da, eta, gainera, arauak ekonomian oro har -lehian eta enpresa txikian eta ertainean eta administrazio-kargen ikuspuntutik- eta ikuspuntu sozialetik nola eragin duen aztertzen da). Bulego honetara bidalitako espedientean ez da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena aurkitu (bere sasoiari sartu zen orain aldatzen den uztailaren 17ko 4/1002 Legearen aurreproiektuaren espedientean). Aztertutako aurreproiektuaren testua bat dator 2016/01/20an espedientean sartutako bertsiorekin.

Adierazi behar da, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren ondorioz, aurreproiektuan aldaketak egiten badira, horien berri Bulego honi eman beharko zaiola, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Kontabilitate Kontrolaren ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetako lehenengoak emandako idazketan).

Gogorarazi behar da, halaber, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.4 artikulua honako hau ezartzen duela: *"Ekonomia-arauen kontrolak dagokion gaien aginpidea duen Ekonomi eta Ogasun Saileko edozein organok, hala egokitzen bada eta indarrean dauden xedapenen ondorioz, izapidetu behar dituen txosten guztiak bereganatuko ditu, hitzez hitz, eta jatorria aipatu beharko da"*. Aurrekoa oinarri hartuta, txosten honetan, eranskin gisa, proiektatutako Legeari Aurrekontuen Zuzendaritzak 2016ko otsailaren 9an egindako txostena jasotzen da.

b) Edukia

Aurkeztutako aurreproiektuak azalpen-zatia du, artikulua bakarra (bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean

sartutako aldaketak aipatzen dira –66, guztira–), 9 xedapen iragankor eta bi azken xedapen.

Planteatzen diren neurri zehatzak honako gai hauei buruzkoak dira: polizia-ereduaren indartzea, hautaketa- eta sarrera-eremuak, polizia-kidegoetan emakumeak sartzeko ekintza positiboko neurriak, barne-sustapena, lanbide-karrera eta zuzkidura, administrazio-egoerak, funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak, diziplina-araubidea eta udaltzaingoa.

Proiektatutako legeak, gainera (laugarren xedapen iragankorra), sei hilabeteko epean, Ertzaintzaren lanpostuen zerrendaren aldaketa aurreikusten du, superintendente-kategoriarako erreserbatutako postuak egokitzeko. Halaber, Jaurlaritzari 12 hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen Testu Bategina onesteko baimena aurreikusten du (azken xedapenetako lehenengoa), testu bakarrean batzeko indarrean sartu zenetik izan dituen aldaketak.

Espedientea aztertuta, batetik, ekimenaren ekonomia- eta antolamendu-alderdiak aztertu behar dira, eta, bestetik, aztergai dugun proiektuak ogasunaren eta ekonomia- eta finantza-araubidearen alorrean izan ditzakeen ondorioei erreparatu behar diegu, hau da, Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan izan dezakeen eraginari. Gai horiek zehaztuta daude Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen testu bateginean, azaroaren 17ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zenean; zehazki, haren 1.2. artikuluan (*ondarearen erregimena, aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerak bete behar duen kontrol- eta kontabilitate-sistema, kontrataziorako erregimena, Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren erregimena, tributua eta bestelako diru-sarrera publiko eta pribatuak arautzea, zorpetzeko erregimena, bermeak emateko erregimena, laguntzak eta diru-laguntzak emateko erregimen orokorra, Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan dituen eskumenen erregimena, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskubideekin eta betebeharrekin zerikusia duen beste edozein erregimen*).

C) Antolamendu-eragina

Proiektatutako testua irakurrita ikusten da antolamendu-eragina egon daitekeela, Administrazio honentzat, honako aldaketa hauetan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legean sartzen diren 6. eta 7. artikuluko berrietan, polizia-kidegoei dagozkien administrazio publikoek ustezko praktika desegokien kasu esanguratsuen kexak eta ikerketak tratatzeko prozedura eraginkorrak eta inpartzialak ezartzea aurreikusten da, erantzukizunari bide ematen

diotenak eta herritarren eta poliziaren arteko komunikazioan eta ulermenean oinarritzen direnak, eta herritarrek kexak Ekinbideren bidez aurkezteko aukerarekin.

Ekimen hori ez da berria, eremu honetan gaur egun herritarrei arreta emateko dauden zerbitzuei dagokienez. *Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoaren irailaren 29ko 181/2015 Dekretuaren* bidez, polizia bestelako administrazio-zerbitzua arautzen da; zerbitzu hori segurtasunaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio, eta helburu du herritarrei erraztasunak ematea segurtasun publikoko sistemei eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei buruzko kexa, iruzkin eta iradokizunak egiteko; izan ere, zerbitzu horien kalitatea eta herritarrek horietan duten konfiantza hobetu nahi da. Bestalde, Ertzaintzaren web-orrialdean jakinarazten da Bulego hori arduratzen dela Euskadiko segurtasun publikoaren sistema eta herritarrei emandako zerbitzuak hobetzeko kexak, iruzkinak eta iradokizunak jaso, aztertu eta erantzuteaz, aipatutako zerbitzuetan kalitatea eta konfiantza hobetzeko.

Aurreproiektu honen memoria ekonomikoak egiaztatzen du, horrela, ez dagoela aurrekontu-eraginik kexen tratamenduari dagokionez, hori dagoeneko existitzen den eta zeregin horiek egiten dituen zerbitzu bati esleitzen zaiolako, baina prozedura estandarizatu egiten da eta lege-lerrun formala duen arau batera eramaten da.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu beharko litzateke helburua ez dela zerbitzu horiek zabaltzea, baina bidezkoa izango litzateke zehaztapen gehigarriren bat egitea 8. artikuluko berriak gatazkak ebazteko metodo alternatiboak erabakitzeak eskainiko duen aukeraren inguruan, besteak beste, bitartekaritza; azken prozedura horri dagokionez, ez dakigu hori ere ezarrita dagoen edo etorkizunean abian jartzeak administrazio honi baliabideen premia handiagoak ekarriko dizkion.

2. 10. artikuluko berriak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Jardunbide Egokien Batzordea eratzen da, polizia-erakundeari eta Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloan eskumena duen sailari dagokionez, autonomia funtzionala duen kide anitzeko organo gisa (dena den, komeni da Batzordearen atxikipen-organoa zehaztea), herritarrek polizia-jarduerari buruzko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean duten legezatasuna eta konfiantza sendotzeko. Batzorde horrek, halaber, poliziaren jardunbide egokian eragiten duten jokaera eta ezbeharren inguruan aztertzeak eta gomendioak emateko zereginak izango ditu. 11.1 artikuluko eremuetan prestigiodunak diren 6 kidek osatuko dute (horietako bat batzordeburu izango da); 3 kide A sailkapen-taldean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren eskala eta kategorietakoak diren edo izan diren eta kidegoan gutxienez hamabost urte eman dituzten pertsonen artean izendatuko dira.

11.4 artikuluan ezarrita dagoenez, *"Batzordeko kideek ez dutela inolako ordainsaririk jasoko beren lanen truke. Nolanahi ere, zerbitzu-arrazoientzako kalte-ordainak kobratu ahal izango dituzte, hala badagokie, administrazio publikoetako enplegatuak izan ezean"*. Eta 12.4 artikulua aurreikusten du *"Batzordearen jarduketak kideek berek egingo dituztela, eta, hala badagokio, ikerketa jakin batzuetarako zerbitzuak emateko funtzionarioen laguntza eskatu ahalko dutela"*. Kasu horietan, ez dituzte jaso beharko jatorri-destinoko agintariak emandako agindurik.// Era berean, *"Batzordeak eskatu ahalko die ikerketa egiteko Ertzaintzaren barne-kontuetarako zerbitzuei, eta batzordeak berak gainbegiratuko du ikerketa hori zuzenean"*.

Memoria ekonomikoak sortu berri den organoari buruz honako hau dio: *"funtzionamenduan jartzeak gastuak sor ditzake; hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da ez dela administrazio- edo laguntza-egitura egonkorra eta propioa behar duen organo bat, eta horregatik gastu aurreikusgarriak gehienez ere batzorde horretako kideei ordaindu beharreko dietak izango dira, eta horiek ez daude kronifikazio edo aldizkakotasunari lotuta, arauan aurreikusitako gertakarien bat gertatzen denean bakarrik aktibatzen baita batzordea, hala ofizioz nola administratzaileen eskariz. Beraz, gastua ezin da alde aurretik kuantifikatu, eta edonola ere ez da esanguratsua izango aurrekontuari dagokionez"*.

Nolanahi ere, neurriaren aurrekontu mugatua ondorioztatzean, zehatzago adierazi behar zen batzorde berriaren aldetik aurreikus daitezkeen esku-hartze kopuruaren eta izaeraren gainean, besteak beste, gaur egun dauden kexa-kopuruan, gorabeheretan edo ikerketa-beharretan oinarrituta. Bestalde, behintzat bidezkoak diren kalte-ordainen estimazioa egin behar zen (administrazioen enplegatu ez diren hirugarrenen kasuan baino ez, 11.4 artikuluan aurreikusten den bezala), bai eta 12.4 artikuluan aurreikusten diren baliabide edo laguntzen ere. Izan ere, batzorde berriari zuzenean egotzi ezin bazaizkio ere, kostuak eragin ditzakete tartean diren funtzionarioen zerbitzu-eginkizunen ondoriozkoetan edo Ertzaintzaren barruko gaien zerbitzuen ondoriozkoetan, baldin eta, horren ondorioz, azken horiek zeregin gehiago badituzte eta horrek aurrekontu-gastu handiagoa eragiten badu (langile gehiago edo baliabide material gehiago). Beraz, komeni da memoria alde horri dagokionez osatzea, eta azken alderdi horren balorazioa egitea.

3. Ertzaintzako Batzordearen zereginetako biren baldintzak aldatzen dira (Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintzari buruzko Legearen 17. artikuluko d) eta i) letretan jasotzen direnak), eta memoria ekonomikoak ez ditu horiek aipatzen; baina Bulego honek ez du aldaketan antolamendu-eraginik eta ekonomia-eraginik antzeman.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintzari buruzko Legeari eransten zaion 40. artikulua berriak badirudi beste bi zeregin esleitzen dizkiola Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari (*1. Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak sustatuko du administrazio eskudunak baliozko ditzala beren mendeko zentroetan jasotzen diren ikasketak. Horretarako, Akademia ahaleginduko da hezkuntzako administrazioaren eskakizunetara egokitzen ikasketa horien izaera eta iraupena eta ikasketa bakoitza egiteko eskatzen diren titulazioak; gainera, hezkuntzako administrazioaren, Unibertsitatearen, Botere Judizialaren eta ikaskuntzarako bereziki lagungarri izan daitezkeen beste erakunde, zentro edo ikastetxeren lankidetzaren lortzea ere sustatuko du.*) // *2. Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak, bertan egiteko eskaintzen dituen ikastaroetan, ikasgai jakin batzuk baliozkotu ahal izango dizkie horiek lehenago gainditu izana egiaztatzen dutenei, erregelamenduz zehazten den eran.*) Baina benetan ez dio arau aldetik ezer berririk gehitzen organismo horren arauketari; arauketa Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeako ekainaren 28ko 15/2012 Legeak egokitzen du, eta haren 23.4 artikulua hitzez hitz transkribatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintzari buruzko Legearen proiektatutako 40.1 artikuluan, eta 23.3.c) artikuluan esleitzen zaio, dagoeneko, Akademiari honako zeregin hau: *"Akademiak ematen dituen ikastaroak gainditu direla edo ikastaroetara bertaratu dela egiaztatzen duten titulu eta diplomak ematea eta horien baliozkotzearen inguruan erabakitzea"*. Baina ez dakiguna da orain xehetasun gehiagoz zehaztu nahi ote den baliozkotzeko eskumen hori, zehaztuz *"gai batzuei dagokiela, gainditu dituztela egiaztatzen dutenen kasuan, erregelamenduz zehazten den moduan"*; dena den, ezin da pentsatu zeregin hori aurretiko erregelamendua kontuan izan gabe bete daitekeenik, lege hark berariaz ez badio ere.

Komeni da proiektatutako legean ez errepikatzea indarrean dagoen beste lege-arau batean araututa dauden edukiak, baldin eta aldaketarik egin nahi ez bada, eta, aldaketarik egin nahi izanez gero, komeni da berariaz hala egitea, segurtasun juridikorako.

5. *79bis.6* artikulua partaidetza-organo kolegiatuak eratzea aurreikusten du, zeinetan Administrazioak eta langileek ordezkarikopuru berdina izango baitute lan-arriskuen prebentziorako. Ulertzen da organo horiek, dagoeneko, badaudela, memoria ekonomikoan oro har hau esaten denean: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako langileen oinarrizko gizarte-babesari eta osagarriari buruzko kapitulu berriak [ulertu duguna kontuan hartuta ez dio V. Kapituluari, Osasuna eta Babesa izenekoari, erreferentziarik egiten] ez dakar aldaketarik aurretik dagoen benetako egoerari dagokionez, beraz ez dio balioa kentzen Legean sartzeari*. Berriak ez direnez, beraz, arau honetan, ez dira espero egungo funtzionamenduaren ondoriozko gastuak baino handiagoak.

Ez da ikusten araututako gaiaren kudeaketarekin lotutako antolamendu-egitura berri gehiago.

d) Ekonomia- eta aurrekontu-eragina

Lehenengo eta behin, proiektatutako arauan EAEko Administrazioari zuzeneko edo zeharkako ekonomia- edo aurrekontu-eragina ekar diezaioketen alderdiak aztertu behar dira. Beraz:

1. 47.bis artikuluko berriak, emakume eta gizonen berdintasunerako neurriak buruzkoak, 2. zenbakian aurreikusten du polizia-kidegoetan emakumeak sustatzeko planak egitea, kidegoan sartzean eta lanbide-karreran emakume eta gizonentzat aukera-berdintasuna bermatzeko. Plan horiek ezarriko dute, dagokien plangintza-aldirako, emakumeen ordezkariak txikiak zuzentzeko eta polizia-eraginkortasuna areagotzeko lortu nahi den polizia-plantillan emakumeen ehunekoa zein izango den, eta berariazko neurriak hartu ahalko dituzte emakumeen alde, izatezko desberdintasunen egoera nabarmenak zuzentzeko, horiek iraun bitartean.

Paraleloki, hurrengo zenbakietan hautaketa-prozesuetan aplikatu beharko diren irizpide eta ehunekoak ezartzen ditu, eta, agente eta komisariordearen kategorietan txanda askearen bidez sartzeari dagokionez, gutxienez jasotzen da, harik eta aurretik aipatutako planak egin arte: *"Oro har, emakumeen aldeko sustapen-plan horiek ezartzen ez diren artean, gutxienezko portzentajea ezingo da izan % 25 baino txikiagoa, betiere 3 plaza baino gehiago deitzen bada."*

Kontuan hartu behar da aipatutako planen onspenean atzerapena egoteak hautaketa-prozesuaren gainean interesa dutenen aukerak ere atzeratuko lituzkeela, aurretik aipatutako gutxienezkoaren gainean tresna horiek aurreikus dezaketzen portzentajearen behin-behineko hobekuntzaren kasuan. Beraz, komeni da aipatutako agindua aintzat hartzea, aztergai dugun arau indarrean sartzean, baldin eta arrazoizko epe laburrean eraginkorra izan dadin nahi bada.

Planak egiteak ekar ditzakeen kostuak direla eta, memoria ekonomikoak azaltzen du sustapen-planak egitea nahitaezkoa dela plangintza-jarduera gisa, eta horrek aldizkako administrazio-karga dakarrela, baina Segurtasun Sailean edo berdintasun-unitateak dituzten udaletan lehendik zeuden antolaketa-egiturek asimilatze modukoa dela.

Gomendatzekoa da artikuluko horretako 6. paragrafoa aztertzea, honela baitio: *"Aurrez aipatutako emakumeen aldeko lehentasun hori behin-behinean aplikatuko da deialdiaren xedea den kidegoan, eskalan eta kategorian; hain zuzen, kidego, eskala eta kategorian horretan emakume funtzionarioen ehunekoa %33koa edo txikiagoa den bitartean".* Hor seguru asko *"edo handiagoa"* esatea zen asmoa, esaldiaren zer-nolakoa kontuan harturik.

2. 50.2 artikulua zera ezartzen du: *"Toki-erakundeek eskatu ahalko diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari, hark aurretik onartzen badu, Udaltzaingoa sartzeko hautaketa-prozeduren deialdia elkarrekin gauzatzeko, bai eta, hala badagokio, aguazilen edo mugikortasun-agenteen kidegoetan sartzeko ere. Eskaera hori eginez gero, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak egingo ditu hautaketa-prozedura horiek."* (soberan dago amaierako puntu bat). Eta horrek izan dezakeen karga ekonomikoa dela eta, memoriak dio aldeak adostutako prozedura izango dela, eta "ez duela aurrekontu-eragin negatiboa; baliabideak eraginkortasunez arrazionalizatzeko balio du, ez bakarrik eskala-ekonomien ondoriozko aurrezpen errealekin toki-erakundeentzat, baita Akademiarentzat ere; izan ere, horrela, hautaketa-fasea Akademiako nahitaezko prestakuntza-fasearekin koordinatu ahalko litzateke eta, gainera, ikastaroak eraginkorrago planifikatuko lirateke, egun beretan bateratuko bailirateke urteko ikasle guztiak udaltzaingoa sartzeko". Badirudi esan nahi duela, sail proposatzaileak balioesten duenaren arabera, baterako prozesu horiek ez dutela gastu handiagorik ekarriko, baizik eta kostuen aurrezpen globala administrazio batentzat eta bestearentzat. Aurrezpen hori ere ez dago baloratuta memoria ekonomikoan, ez eta aurrekontu-partida berezian egotzita ere.

3. Lanpostu bati behin-behinean atxikitzeari dagokionez, 71.3 artikulua idazketa berria ez dirudi gaur egun lehen zenbakian ematen denetik asko aldentzen denik; dagoen desberdintasuna da indarrean dagoen arauak "gradu pertsonala"ri buruz diharduela, eta aztergai dugunak "kategoria"z hitz egiten duela. Eta bigarren zenbakia dela eta -osagarri iragankorra ezartzen du, behin-behineko atxikipenpostuaren ordainsarien eta amortizatutako jatorrizko postuaren arteko desberdintasunaren ondorioz-, proposamen honetatik desagertzen da. Ez dakigu zer eragin izan dezakeen aldaketa horrek polizia-kidegoen egungo ordainsarien arauketan, izan ere, memoria ekonomikoak ez du berariaz aipatzen; ez dakigu, bestalde, osagarri horri buruzko zenbakia ezabatu izanak aurrekontu-aurrezpena ekarriko duen langileen kapituluan. Komeni da memorian argitzea eta, hala izanez gero, administrazio honi ekarriko dion gastu txikiago hori ekonomikoki balioestea eta dagozkion finantzaketa-partidetan identifikatzea.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langile funtzionarioen lanbide-karrera dela eta, 73.ter artikulua berriak ezartzen du segurtasunaren arloan eskumena duen sailak eta udalerriek lanbide-karrera horizontaleko sistemak ezarri ahalko dituztela, lanbiderako garapen-mailan aurrera egiteko, lanpostuz aldatu behar izan gabe, baina lanbide-karrera horizontaleko modalitateen ezarpenaren eta garapenaren eraginkortasunerako euskal administrazio publiko bakoitzak araudiaren garapena egin beharko du, eta lanbide-karreraren eraginkortasuna, nolana ere, administrazioen aurrekontu-baliabideen pean dago.

Memoria ekonomikoak ez du balorazio kuantitatiborik egiten osagarri horiek ezartzearen ondorioz egon daitezkeen gehiegizko kostuen inguruan, nahiz eta arau honek ez dituen administrazioak derrigortzen eta ez dituen zehazten haien diru-aurrekontuak (aipatutako memoriak adierazitakoak), baina, legeak aurreikusten badu, ekar ditzakeen aukerak kontuan hartuta, espero da etorkizunean –lehenago edo geroago– neurri hori eraginkortasunez abian jarri ahal izateko araudi-garapenari heldu behar izatea. Ondo legoke neurri honek aurrekontuan izan dezakeen eraginaren aurreikuspena egin izana, behintzat administrazio honi dagokionez, eta etorkizuneko aurrekontu-egoeretan kokatu izana. Eta horrela gomendatzen da osatzea memoria ekonomikoa.

Bestalde, 74. artikuluko sailkapen-eskalatik, superintendentearen postua ezabatu da, gaur egun kategoria gorena duena (8. maila).

Hura ezabatzearen ondorio funtzionalak proiektatutako legearen zioen azalpenean bilatu behar dira. Bertan, bi aipamen zehatz egiten dira:

“Superintendente-kategoria kentzen da, eta, horrela, Ertzaintzaren erantzukizun goreneko postuak eskuratzea eta betetzea bizkortzen da, lanpostuak betetzeko prozedura arrunten bidez.”

.....

Superintendente-kategoria desagertzen da; hala, eskala eta kategoria horretan sartutako plazen eginkizunak lanpostu jakin batzuetan bereizten dira, eta hark lanpostu horietara sartzen laguntzen du, betiere lanpostuaren baldintzak lanpostuak betetzeko ohiko sistemen bidez betetzen badira.

Bestalde, laugarren xedapen iragankorrean sei hilabeteko epea ematen da Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzeko eta desagertu den kategoriarako erreserbatutako postuak egokitzeko; gainera, aurreikusten da aldaketa hori gauzatu arte postu horiek betetzen dituztenek jarraituko dutela superintendentearen kategoria horri esleitutako ordainsariak jasotzen, gaur egun indarrean dagoen araudiarekin bat etorritz.

Hala ere, iragankortasun horrek ez luke birtualtasunik izango kategoria hori duten pertsonen dagokienez; izan ere, proiektuaren memoria ekonomikoak azaltzen duenez, ez dago bat bera ere: *Superintendente-kategoria kentzeak eragin mugatua du, ez baitago kategoria hori duen funtzionario bakar bat ere. Eskala eta kategoria horien barnean hartutako plazei (orain goragoko kategoriako zerbitzu-eginkizunean estalita daude) dagozkien funtzioak goragoko eskalako lanpostu zehatzetan ezartzen dira. Aurrekontu-eragina ez da asko nabaritzen lanpostu gutxi direlako (3) eta lanpostu horien ordainsariak, ezabatuko den kategoriarik lotuta daudenak, destino-osagarriari (kategoria) buruzkoak baitira soilik, eta kategoria hori duen funtzionario bakar bat ez dagoenez, horrek ez du inolako eraginik, eman daitezkeen*

aparteko haborokinak salbu. Funtzio Publikoaren Txostenak, bestalde, zera zehazten du: "Inork ere ez du superintendentearen kategoria. Izan ere, kategoria txikiagoko funtzionarioak betetzen ari dira superintendentearen kategoriarri erreserbatutako postuak. Behin aldaketa horiek gauzatuta, intendentearen kategoriarri dagozkion ordainsariak emango dira."

Bestalde, Ertzaintzari dagokionez, destino-osagarrien zenbatekoak urtero ezarriko dira aurrekontuen legean, gaur egun egiten den bezala (2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legearen 21. artikulua), baina aurrekontuen lege honek ere zehaztu beharko du -74.1.a)bis) artikulua berria- lanbide-karrerako osagarriaren zenbatekoa, alegia, lanbide-garapenaren gradu bakoitzari dagozkion ordainsariak, sailkapen-taldearen arabera. Esan den bezala, azken osagarri hori eraginkorra izateko, aurretik arautu egin beharko da, baina kontuan izan beharko da, dagokion aurrekontua egiteko prozesuan, arauketa hori indarrean sartzen den ekitaldian ekarriko dituen gastuen zenbatespenaren gainean kredituak gordailutzeko beharra; hori guztia, Aurrekontuen Zuzendaritzak emandako jarraibideekin bat etorritz.

5. 79 ter eta 80 artikulua berrietan gizarte-babes osagarrien mekanismoei eta kondekorazio eta aitortpenen araubideari buruz xedatutakoa dela eta, proiektuaren memoria ekonomikoak zera adierazten du: "*Zerbitzu poliziala edo beren funtzioak betetzen edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako funtzionario izatearen ondorioz gertatzen diren heriotza- edo ezintasun-kasuetan dauden eskubide osagarrien aurreikuspenak ez dira berriak ez Ertzaintzan ezta udaltzaingoetan ere, kidego horien zerbitzuarengatik kondekorazio-erregimenari buruzko erregelamenduzko erregulazioetan dagoeneko agertzen direlako.*" Prestazio sozial horiek agente polizialaren merituzko jokabidearen ebaluazioari ez lotzean datza berritasuna.// Antzekoa esan daiteke ohorezko kondekorazioak emateko erregimenari buruz; polizia-lanarengatik domina ematea Ertzaintzaren nahiz udaltzaingoaren kasuan ez da aldatzen, bakoitzaren erregelamenduan ñabardura bereizgarriekin bilduta dagoen aurretiazko erregelamendu-erregulazioarekin alderatuta. Proiektuan zerbitzu-ekintzan hildakoak edo erretiroa hartu dutenak goiko kategoriara ohore gisa igarotzeko aurreikuspenak ez du ondorio ekonomikorik.

Memoriak gizarte-prestazioak polizia-agenteen jokabidearen ebaluaziotik bereiztea dela-eta aipatzen duen berritasunari dagokionez, zehaztu beharko litzateke aurreikuspen berri horrek zenbat kasutan izan lezakeen eragina eta zeinek ekarriko lukeen gastu handiagoa, edo, bestela, eskubide horri eragiten dion ebaluazio negatiboko kasurik ez dagoen, kontuan hartuta berritasun horrek, beraz, ez lukeela izango ondorio praktikorik. Ondo legoke memoria ekonomikoan argitzea.

6. Langileen administrazio-egoeren arauketan jasotako aldaketak direla eta, VI. kapituluaren behin-behineko eteteari, adinaren arabera modulatuak zerbitzu aktiboari eta bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeari buruzko alderdiak jasotzen dira.

Lehenengo eta behin, zalantzaren bat sortzen da 84. artikuluko 5 zenbaki berriari dagokionez; bertan zehazten da "*behin-behineko etetea behin betiko bilakatzen denean, funtzionarioak ordura arte jasotakoa itzuli beharko duela*". Izan ere, memoria ekonomikoak ez dio ezer horren inguruan, eta lehenengoz irakurtzean ondoriozta daiteke aurrezpena izango dela administrazioarentzat, aipatutako itzulpenen ondoriozkoa, dagokion karga ekonomikoarekin etetea egiteko, eta uste da aipatutako memorian agertu beharko litzatekeela, ez bada ez dela aurreproiektu honen benetako berritasuna. Memorian ez denez berariaz aipatzen, hura ere alde horretatik osatu beharko litzateke.

Aipatutako 5 zenbakiak, halaber, zera zehazten du: "*Behin-behineko etetea zehapen irmo bilakatzen ez bada, Administrazioak benetan jasotako hartzekoen eta eskubide guztiak izanez gero jasoko litzatekeen arteko aldea bueltatu beharko dio*". Hori, aurkakorik antzeman ezean, artikuluko bereko 4 zenbakian jasotzen da.

Arauaketa berria dela eta, bai *adinaren arabera modulatuak zerbitzu aktiboarena*, bai *bigarren jardueraren egoerarena*, Funtzio Publikoko Txostenak, 9. zenbakian bi kontuen gaineko analisi xehatua egin du, eta proiektuaren tramitazioaren memorian ere kontuan hartu da (44. orrialdetik 47.era). Hemen ekonomia- eta aurrekontu-eragina ondorioztatu daitezkeen alderdiez jardungo dugu, eta:

85. artikuluan, kategoria independente berri gisa, zerbitzu aktiboarena jasotzen da, "*adinaren arabera modulatuak zerbitzu aktiboarena*"; eskakizunak administrazio bakoitzak arautu beharko ditu, aurretik langileen ordezkartzearekin negoziatuta, artikuluko bereko 3 eta 4 zenbakien baldintzen arabera. Egoera berri horrek, interesdunak eskatuta aitortu ahalko denak, indarreko arauetatik "adinagatik bigarren jarduera" azpimota ezabatzea dakar, ofizioz aitortzen dena.

Memoria ekonomikoak ez du horren inguruko aurreikuspen kuantitatiborik egiten, izan ere kontuan hartzen du *une honetan ia ezinezkoa dela hurrengo urteetan eragingo diren ondorioen benetako kalkulua egitea*. Horren arrazoi nagusia da, *adina dela-eta egokitutako zerbitzuaren modalitatea funtzionarioen eskubidea dela, eta ez obligazioa*. Horrenbestez, *aukera horiez baliatzea banakako eta borondatezko erabakiaren ondorio izango da, eta ezin da jakin, gutxi gorabehera, zenbatek erabakiko duten eskubide horiek gauzatzea*.

Hala ere, aurreikuspenen bat egin liteke, esaterako, honako hauek oinarri hartuta: legea garatzeko kontuan hartzen ari den araubidearen zehaztapena, kolektibo hori gehitu dezakeen langile-kopurua, adinagatik bigarren jardueran ari den langile-kopurua, eskari zenbatetsia eta aurreikusitako ordainsariak. Hori guztia, memoria ekonomikoan balorazioen bat sartzeko, arrazoiz ondorioztatzeko proposamenaren bideragarritasuna, aurrekontuaren alderditik. Bai proiektuaren tramitazio-memoriak Funtzio Publikoko txostenaren erantzunean, bai memoria ekonomikoak aurreikusten dute "datozen urteotan Ertzaintzan gorakada nabarmena egongo dela erretiroetan eta beste baja begetatibo batzuk, eta areagotu egingo dela, ikusi dugun bezala, zerbitzu aktibo modulatura igaroko den edo igaro daitekeen langile-kopurua", etorkizunerako datuak aurretik estrapolatu ondoren; bertan esanguratsua da 2016rako aurreikusitako gorakada -% 30,5- ZAM eska dezakeen pertsona-kopuruan.

Antzeko gogoeta egin behar da 87. artikuluan aurreikusten den ordainsari-araubidearen gainean, ZAMeko langileak edo bigarren jardueran dauden langileak aldi baterako lanposturik gabe dauden kasuetarako; horren gainean funtzioko txostenak dio *"Aurreproiektuan arautzen dela pertsona aldi baterako destinorik gabe egoteko aukera; kasu hori indarrean dagoen araudian islatzen da, baina aldaketa bat egiten da, jasotzeko ordainsariei dagokienez. Indarreko legean jasotzen dira, batetik, kategoriari dagozkionak, eta, bestetik, onartuta dauzkan pertsonalak, hirurtekoak barne. Proposamen berriaren arabera, ordainsariak handiagoak izango lirateke, azken lanpostuaren ordainsariak jasoko lituzkeelako, osagarri espezifikoarenekin osagarri berezia izan ezik."*

Polizia-zereginak oro har betetzeko ohiko eginkizuneko gutxiegitasun psikofisikoa edukitzeagatik bigarren jardueraren arauketa berria dela eta, bidezkoa da Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostenera jotzea; adierazten da bat datorrela gaur egun Ertzaintzan dagoen egoerarekin (lan-baldintzen hitzarmen arautzailea) eta ez du, beraz, aurreikusten ez den aurrekontu-eraginik planteatzen.

105. eta 118. artikuluko berrietan jasotako eskalen arabeko sailkapena dela eta, eta, zehazki, 2.c) zenbakietan xedatutakoa dela eta, memoria ekonomikoak zera dio: *"Sartzeko eskakizunen arauketak dakar probetara aurkezteko sartu nahi den sailkapen-taldeari dagokion titulazioa izateko beharra, eta hori, oinarrizko eskalaren kasuan, C1 taldea izango da. Hori ez dator bat egungo egoerarekin, izangaiei C2 taldeko titulazioa edukitzea eskatzen baitzaie, eta karrerako funtzionario izendatzen dituztenean administratiboki C1 taldean mugatutako ordainsari-eraginekin birsailkatzen baitituzte.// Egia esan, aldaketak ez du eraginik izango lege berri hau indarrean jarri baino lehen karrerako funtzionario direnengan (ondorio horietarako birsailkatuta daudelako eta gainera kidegoan sartzeko jasotako prestakuntzaren eragin akademikoen konbalidazioa eska dezaketelako), baina*

eragin ekonomikoa izan dezake lege berria indarrean jartzen denetik aurrera sartzen diren promozioetako izangaiei dagokienez.// Gaur egun praktiketako funtzionarioek C2 azpitaldeari dagozkion oinarrizkoak jasotzen dituzte, karrerako funtzionario izendatu ondoren arte C1ean ez zaielako birsailkatzen. Erreformatik ekarriko luke praktiketako funtzionarioen ordainsaria handiagoa izango litzatekeela sailkapen-taldeari dagozkion oinarrizko ordainsariekin alderatuta. Eragin ekonomikoa ezin da aldeztu aurretik kuantifikatu, izan ere, Administrazio bakoitzarentzat une bakoitzean deitutako plaza kopuruaren eta praktiketako funtzionario kopuruaren arabera izango baita”.

Ez ditu guztiz zehazten eskura dauden datuen estrapolazioaren ondorioz egin diren kostuen estimazioak (behintzat administrazioari dagokionez), eta ez du egiten finantza-estalduraren eta dagokion aurrekontu-partidan izango duen eraginaren aurreikuspena. Halaber, memoria ekonomikoa alderdi horretan osatu behar da, kontuan hartuta, gai horri dagokionez, Aurrekontuen Zuzendaritzak bere txostenean (eranskin gisa erantsi da) kontzeptu horren gainkostuak ekar dezakeenaren balorazioa egin duela (C2 taldea C1era birsailkatzea), prestakuntza- eta praktika-aldietan oinarrituta; Segurtasun Sailerako urteko kostuan 916.000 euroko gorakada balioesten da.

Eraginpean dauden polizia-kidegoetako langileen estatutu-araubideari buruzko arau berriaren gainerako aurrerapenak direla eta, Funtzio Publikoko txostenean dagoeneko egindako gogoetara jo behar dugu.

e) Azkenik, 113. artikuluko berria xedatutakoaren aipamen bereziren bat egin behar dugu. Lehenengoan hauxe xedatzen da: *“Ikerketa kriminalaren eta polizia judizialaren unitate eta zerbitzuei atxikitako funtzionarioen prestakuntza berezia Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren bidez egingo da, eta, hala badagokio, praktikaldiak jasoko ditu, non Epaitzako eta Zerga Ministerioen kideek ere parte hartu ahalko duten”*. Bigarrenean, ordea: *“Segurtasunean eskumena duen sailak Ertzaintzaren parte-hartzea sustatuko du ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko jardueren koordinazioari buruzko eskualde, estatu eta nazioarte mailako batzorde eta foro esanguratsuetan”*. Eta ez dakigu prestakuntza- eta sustapen-agindu horiek berriak ote diren bi instantzia horiei dagoeneko dagozkien zereginetan (Akademia eta saila), eta ez da aurreikusten gainkostu gehigarririk bi kontzeptu horietan, Legea sartu ondoren.

Aguazilen prestakuntza dela eta, memoria ekonomikoan zera azaltzen da: *“Udal-aguazilen inguruan, aurreproiektuak beren estatutu juridikoaren gutxienezko arauak planteatzen du, ordura arte ez zegoena, udaltzainenaz bestelakoa. Horrek haien izena, funtzioak, eskakizunak eta prestakuntza bateratzea dakar. Horri lotutako kostu nagusia, prestakuntzarena, Polizia eta Larrialdietako Euskal*

Akademiaren erantzukizuna izango da aurrerantzean. Edonola ere kostu hori ez da esanguratsua, 2015eko ekainaren 30ean Euskadi osoan 64 aguazil besterik ez zeudelako, eta ez da aurreikusten datozen ekitaldietan antolaketaren eta aurrekontuaren ikuspuntutik onartezina izango den aguazil berrien prestakuntza-eskaria egingo denik". Horrek ez du eragozten, bestalde, haren balorazio ekonomikoa, termino kuantitatiboetan, ez eta finantzaketa-iturrien identifikazioa ere.

Azkenik adierazten du proiektuaren edukitik ez dela antzematen eraginik, administrazio honentzat, diru-sarreraren alderdiari dagokionez, ez eta azaroaren 17ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun orokorraren printzipio arautzaileen Legearen Testu Bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren beraren gaiekiko bestelako lotura zuzenik ere, administrazio honek bere gain hartu behar dituen aurrekontu-gastuei dagokienez aipatutakoak salbu.

Nolanahi ere, komeni da memoria ekonomikoa aurretik aipatu ditugun eta administrazio honen gastu-aurrekontuetan eragin ekonomikoa izan dezaketen alderdien balorazio kuantitatiboekin osatzea eta, horretarako, erantzungo diren kostuak (behintzat balioespen bidez) edo dagoeneko erantzun direnak zehaztea, bai eta aurrekontu-finantzaketaren partidei dagozkien kostuak ere, arau berria onesteko eskumena duen organoak beharrezkoak diren aurrekari guztiak izateko, batez ere tartean diren administrazioen aurrekontu-egoeretan duen eraginari dagokionez.

Azkenik, kontuan hartu beharko da Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostenean egiten den gogoeta. Bertan egoki aurreikusten du honakoa: *"proposatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen aldaketaren ondoriozko langileen kostuen gorakadari Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Segurtasun Sailari 1. Kapitulurako esleitutako zuzkidura ekonomikoekin erantzun beharko zaio urtero; horiek urtero egokituko dira Jaurlaritzak onesten dituen jarraibide ekonomikoetara".*

Toki Administrazioa

Proposatutako aldaketan eragin ekonomikoa dela eta, ekimena sustatzen duen sailak gai horiek memoria ekonomikoaren h) eta i) letretan aztertzen ditu, eta zera ondorioztatzen du: *"...lege-proposamenaren eraginaren nobedadea izango litzateke intendentearen kategoria sortzea hiriburuetan, komisarioarena Barakaldo, Getxo eta Irun udalerrietan, eta komisariordearena Santurtzi, Errenteria, Portugalete, Sestao, Basauri, Durango, Eibar, Zarautz, Leioa, Erandio edo Galdakao udalerrietan, bai eta Irunen ere. // Ondorioz, aurreikustekoa da legeak aurreikusitako kasuetan gaur*

egungo kategorietatik gorakoak dituzten buruzagitzako postu berriak sortzeko beharra zehaztea eta, era berean, tarteko kategoria guztiak sortzea; horrek plantillan gorakadak eta kostuek ere gora egitea ekar dezake// Hala ere, antzeman daitekeenez, finantza-eragina mugatua da eta ez die eragiten udalerrietako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuei". Mugikortasun-agenteei dagokienez, zera zehazten du: "Nolanahi ere, aurrekontu-eraginaren analisia egiteko, esan behar da sorrera horren eragina, behintzat langileen kredituei dagokienez, neutroa izan behar dela, SIKLO-k adierazi eta aurreproiektu honek jasotzen duenaren arabera".

Eragina gizartean eta ekonomia orokorrean

Azkenik, memoria ekonomikoak arau berriak enpresa-sektorean eta herritarrentzat dakartzan ondorioez hitz egiten du (ez du eraginik antzematen), eta tramitazio-memoriak ekonomia orokorraren gaineko eragina aztertzen du VI.b) puntuan; bertan ez da eragin esanguratsurik antzematen eskumenaren gainean, ez eta enpresa tiki eta ertainaren gainean ere, eta ez da espero "zuzeneko eragina, administrazio-kargen ikuspuntutik, horien definizio zehatza kontuan hartuta, baina, prozeduren sinplifikazioa eta hobekuntza dakarren neurrian, esaterako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokionez, hautaketarako etengabeko organo gisa, edo udalerrri arteko mekanismo batzuei dagokienez edo udaltzaingoen antolamendu-egitura profesionalen eraketarako malgutasunari eta arrazionaltasunari dagokienez, oro har pentsa daiteke eragin positiboa izango duela administrazio-kargei dagokienez".

Aurrekoa kontuan hartuta, Segurtasun Sailari tostena erantsi zaio, egindako oharrekin, espedientea izapidetzen jarraitzeko.

ERANSKINA

AURREKONTUEN ZUZENDARITZAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

1.- SARRERA.

Apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuak, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Aurrekontuen Zuzendaritzari esleitutako zereginen artean, honako hau ezartzen du: ekonomia-eduki esanguratsua duten araudi-proposamenen, planen, hitzarmenen eta akordioen inguruan dagozkion txostenak bidaltzea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion egokitzapen-neurriak proposatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta kontabilitate-kontrolari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Segurtasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen Bosgarren Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua aurkeztu du, Ekonomi Kudeaketaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzak 2016ko urtarrilaren 20an egindako memoria ekonomikoarekin batera. Aurrekontuen Zuzendaritzak dokumentazio hori aztertu du, bai eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 2015eko abenduko txostena ere (abenduko 29/2015 Txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen Bosgarren Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektuari buruzkoa), etorkizuneko Legean aurreikusitako jarduketek EAEko Administrazioaren aurrekontuetan izan dezaketen eraginari buruzko informazioa emateko.

2.- LEGE-AURREPROIEKTUAREN ALDERDI EKONOMIKOAK.

Lege-aurreproiektuaren testutik eta Funtzio Publikoko eta Ekonomi Kudeaketaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren txostenen deskribapenetik honako ebaluazio hau ondorioztatzen da, proposatutako edukia EAEko Administrazio Publikoaren eremuan aplikatuzetik ondoriozta daitekeen ekonomia- eta aurrekontu-ondorioen inguruan.

Azpiarratu behar da araudian egiten den edozein aldaketa memoria ekonomiko batekin osatu behar dela eta, bertan, araudiaren aldaketa horrek ekar dezakeen kuantifikazio ekonomikoaren analisia jaso behar dela. Memoria ekonomiko honetan ez dira kuantifikatzen aldaketen eragin ekonomikoak legean, eta kasuren batean hura egitea ezinezkoa dela adierazten da. Kasu batean –praktiketako agentearen kategoria aldatzeko proposamena–, Aurrekontuen Zuzendaritza honek aldaketa horren kostuaren estimazio orientagarria egin du.

Hautaketa eta sarrera arloko aldaketek –kontuan hartuta gaur egun praktiketako funtzionarioek C2 azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasotzen dituztela, ez dituztelako C1ean birsailkatzen karrerako funtzionarioaren izendapenaren osterara arte– ekarriko dute erreformarekin praktiketako funtzionarioen ordainsaria altuagoa izatea, izan ere, zuzenean sartuko lirateke C1 azpitaldean.

Birsailkapeneko aldaketa horrek langileen kostuan izango du eragina, bai ertzainen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako (PLEA) prestakuntza-aldian zehar, bai ondoren, Ertzaintzan praktiketako agente gisa dauden lehen 12/15 hileetan.

PLEAn, kontuan hartuta urtero 250 ertzainaren sustapena sortzen dela, kostuaren gorakadak urtean guztira 432.000 € ekar ditzake (1.707 €/ urtean, praktiketako ertzain bakoitzeko, 9 hilabetez, gehi kostu patronala).

Ertzaintzan, praktiketako agenteen C2tik C1erako birsailkapenak, kontuan hartuta urtero 250 ertzainen sustapena egiten dela, kostuan ekar dezakeen gorakada urtean guztira 484.000 € izan daitezke (1434 €/ urtean, praktiketako ertzain bakoitzeko, gehi kostu patronala)

Beraz, Aurrekontuen Zuzendaritzaren estimazioen arabera, Segurtasun Sailari praktiketako agenteak C2tik C1era birsailkatzeak urtero kostuan ekar diezaiokeen gorakada, guztira, 916.000 € izango lirarteke.

Barne-sustapenaren, lanbide-karreraren eta postuen zuzkiduraren inguruan, barne-sustapenaren bitartez administrazio-karrera bultzatzera bideratutako neurriek ez dute aurrekontu-eraginik, ezta lanpostuak hornitzeari edota espezialitate-lanpostuak sortu edo zuzkitzeari buruzkoek ere, horiek lehenik existitzen direlako.

Karrera profesional horizontalaren erregulazioak eta hari lotutako *karrera profesionaleko osagarri* bat agertzeak eragina izan dezake. Hala ere, adierazi behar da lege-aurreproiektuan aurkezten den arauketa bakarrik dela Ertzaintzan horrelako sistemak ezartzeko gaitasuna ematen duena, baina ez du aplikazio-baldintzarik eta aurrekonturik ezartzen. Beraz, aurrekontuan izan lezakeen eraginaren ustezko ebaluazio hipotetikoa ezin da egin.

Garapen profesionaleko osagarria ez da sortu edo arautu euskal funtzio publikoaren legean, baina euskal enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektuak karrera profesional horizontala arautzen du, garapen profesionaleko graduatan aurrera eginez gauzatuko dena. Eusko Jaurlaritzak arautu beharko du garapen profesionala eta zereginaren ebaluazioa, euskal administrazio publikoetarako oinarritzko aplikazio-irizpideekin, horren inguruan Euskadiko Enplegu Publikoko Koordinazio Batzordeak ematen dituen irizpideekin bat etorri –batzordea aipatutako enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektuan eratu zen–.

Karrera profesionaleko osagarria, beraz, ezin da ebaluatu; izan ere, hura ezartzeko araututa egon beharko du haren aplikazioak euskal administrazio publikoetan, eta ez dago aurreikuspenik egiteko aukera ematen duen parametririk.

Superintendente-kategoria kentzeak eragin mugatua du, ez baitago kategoria hori duen funtzionario bakar bat ere. Eskala eta kategoria horien barnean hartutako plazei (orain goragoko kategoriako zerbitzu-eginkizunean estalita daude) dagozkien funtzioak goragoko eskalako lanpostu zehatzetan ezartzen dira. Aurrekontu-eragina ez da ia antzematen; izan ere, postu gutxi dira (3), eta postu horietako ordainsariak, ezabatuko den kategoriari lotuta daudenak, destino-osagarriari baino ez dagozkie.

Egoera administratiboei dagokienez, berrikuntzarik garrantzitsuenak dira polizia-jardunari buruzko egokitzapenak, adinaren ondorioz egiten direnak, edo funtzio polizialaren berezko gaitasunak gerora galdu izatearen ondorioz, eta betiere funtzionarioen osasuna babesteko eskubidearekin bat etorrita. Horrela, “*adinaren araberako zerbitzu aktibo modulatu*” (ZAM) arautzen da; zerbitzu aktiboarekin jarraitzean datza, adin gehiagoko agenteentzako zeregin egokiak eginez.

ZAM aitortuta ere, horrek ez du esan nahi, arau gisa, lanpostutik mugiaraziko denik, baizik eta egin beharreko jarduna egokitu egingo dela; batez ere, gaueko txandan lanik ez egiteko aukera ematen da, eta, 59 urtetik aurrera polizia-instalazioetatik kanpo patruilarik ez egiteko aukera. Segurtasun Sailaren Memoria Ekonomikoak adierazten du ezin dela eragin benetako kalkulua egin ZAMen hurrengo urteetako eragin inguruan, baina aurreikuspenak egiten dira ustez ZAM eska dezakeen pertsona-kopuruaren gainean. Indarrean dagoen araudiak exijitzen du araudiaren edozein aldaketarekin batera, eta are gehiago hark lege-maila badu, aplikazioak ekar ditzakeen eragin ekonomikoen analisia aurkezteko; hori kasu honetan oso garrantzitsua da, izan ere, datozen urteotan, kolektiboaren batez besteko adinaren gorakadak ekar dezake adinaren araberako zerbitzu aktibo modulatuaren egoeraren aplikazio handia, eta horrek Ertzaintzan kostu operatiboak areagotuko lituzke.

Segurtasun Sailaren Memoria Ekonomikoak adierazten duena da adinaren araberako zerbitzu aktibo modulatuak arautzeko neurri batzuk aplikatzen direla dagoeneko Ertzaintzan, 2012ko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena sartu zenetik, eta horien eragin ekonomikoa Ertzaintzako langileei esleitutako aurrekontu-zuzkidurek hartzen dute beren gain. Kontuan izan behar da Ertzaintzan absentziak ezin direla ordeztu bitarteko langile funtzionarioen izendapenarekin.

Polizia-zereginak arrunt betetzeko gutxiegitasun psikofisikoagatiko bigarren jardueraren administrazio-egoeraren arauketa berria dela eta, gaur egun Ertzaintzan dagoen egoerarekin bat dator (lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena) eta ez du planteatzen, beraz, aurreikusi gabeko aurrekontu-eraginik.

Funtzionarioen banako eskubideen araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako langileen oinarrizko babes sozialari eta osagarriari buruzko kapitulu berriak ez dakar aldaketarik aurretik dagoen egoerari dagokionez.

Lanean edo lanaren ondorioz sortutako gaixotasunak edo laneko istripuak sortutako lesioak edo patologia direla-eta izaten diren aldi baterako ezintasunen kasuetarako, babes sozial osagarriko mekanismoak ditu Ertzaintzak.

Zerbitzu poliziala edo beren funtzioak betetzen edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetako funtzionario izatearen ondorioz gertatzen diren heriotza- edo ezintasun-kasuetan dauden eskubide osagarrien aurreikuspenak ez dira berriak Ertzaintzan, kidego horien zerbitzuarengatiko kondekorazio-erregimenari buruzko erregelamenduzko erregulazioetan dagoeneko agertzen direlako.

Ohorezko kondekorazioak emateko araubidea dela eta, polizia-merituari dominak ematea ez da aldatzen aurretik dagoen araubidezko arauketaren aldean. Proiektuan zerbitzu-ekintzan hildakoak edo erretiroa hartu dutenak goiko kategoriara ohore gisa igarotzeko aurreikuspenak ez du ondorio ekonomikorik.

3.- POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA ERAGINPEAN.

Aurreproiektuko artikuluetan ikus daiteke Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren prestakuntza-zereginetara jotzen dela hainbat alderditan, adibidez: polizia-kidegoetako funtzionarioen hautaketa eta prestakuntza; espezializazio-ikastaroak; toki-korporazioen eskaera hornitzeko oinarrizko ikastaroak gainditu dituzten pertsonekin egindako lan-poltsak; mugikortasun-agenteen edo aguazilen prestakuntza.

PLEAri esleitutako jarduerak ez dira berriak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke Legeak jadanik esleitzen zizkion zereginak kontuan izanik, eta ekar dezakeen lan-bolumena, aurrera begira egin ditzakegun aurreikuspenak kontuan izanik, ez da esanguratsua izango.

Akademian egon bitartean (9 hilabete) taldearen birsailkapenaren (C2tik C1era) ondorioz etorkizuneko ertzainen ordainsariei buruzko kostuaren gorakadaren inguruan adierazitakoa aipatu behar dugu; Aurrekontuen Zuzendaritzak urteko 432.000 euroan zenbatetsi du.

4.- AURREKONTUEN ZUZENDARITZAREN GOGOETAK.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua indarrean sartzeak 2016an Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuetan eta etorkizunekoetan ekar dezakeen aurrekontu-eragina dela eta, Segurtasun eta Administrazio Publikoko eta Justiziako sailek emandako dokumentazioa aztertuta, Aurrekontuen Zuzendaritzak uste du kostu ekonomikoen gorakadak izango direla, funtsean, kontzeptu hauengatik:

1.- **Praktiketan dauden ertzainen** atxikipen-taldearen aldaketari dagokion kostuaren gorakada aurreikus daiteke, eta Aurrekontuen Zuzendaritzak urtean 916.000 €-an kalkulatu du.

2.- Halaber, ordainsari-behar berriak ondorioztatuko dira, **adinaren araberako zerbitzu aktiboaren modulazioen** arauketaren eragina konpentsatzeko; zenbatekoa ez du ebaluatzen Segurtasun Sailak, hura aurkeztutako memoria ekonomikoaren defizita izanik. Bakarrik adierazten da neurri horietako batzuk dagoeneko aplikatzen direla gaur egun Ertzaintzan, eta eragin ekonomikoari Ertzaintzako langileei esleitutako aurrekontu-zuzkidurekin ari zaio erantzuten.

3.- Etorkizunean esanguratsua izan daiteke **Ertzaintzan lanbide-karreraren osagarria** ezartzea, euskal administrazio publikoan lanbide-karrera horizontala araututa. Hala ere, egoera hori ezin da ekonomikoki ebaluatu, ez baitago oinarri hartzeko aipamenik.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen inguruan proposatzen den aldaketak dakartzan langile aldetiko kostuen gorakadei urtero erantzun behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Segurtasun Sailari 1. kapitulurako esleitutako zuzkidura ekonomikoen bidez; horiek urtero egokituko dira Jaurlaritzak onesten dituen jarraibide ekonomikoetara.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a

Sin.: Hernando Lacalle Edeso jauna
AURREKONTUETAKO ZUZENDARIA